SARRERAK / INGRESOS	5.220.761	4.848.020	4.211.126	3.518.658	3.166.057	2.923.779
KOMPENTZAZIOAK / COMPENSACIONES	42.294	36.607	76.375	25.549	7.487	95.134
ITZULKETAK / DEVOLUCIONES	1.739.764	1.505.044	1.224.353	1.131.587	1.139.637	54.554
AITORPEN KOPURUA / NÚMERO DECLARACIONES	725.185	701.127	679.839	649.704	638.214	613.403

KOADROA / CUADRO IV 50

3.b.2. Fabrikazioko Zerga Bereziak

a. Araudia

Europar Batasunak zerga-mugak kendu ondoren, Batasuneko Estatu kideek bere egin behar izan dute zeharkako zergei eta, batik bat, zerga bereziei buruzko araudiak, eta, halaber, haiek harmonizatzeko prozesu bati ekin behar izan diote. Europar Batasunak onartutako zuzentarauen transposizioa egin du Estatu espainiarrak, eta, ondorioz, Espainiako zuzenbideko arau bilakatu dira haiek. Hala, osatuta dago zerga berezien arau-esparrua, bai Europar batasunean, bai Estatu espainiarrean.

BEZarekin gertatzen den moduan, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arauak erabiliko dira (abenduaren 28ko 38/1992 Legea, Zerga Bereziei buruzkoa eta uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretua, Zerga Berezien Erregelamendua onartzekoa) zerga bereziak eraentzeko, alde batera utzita, orain ere, aitorpen-ereduak eta sarrera-peak finkatzeko arauak.

Hauek dira zerga berezien alorrean itundutako zergak: Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko zerga, Tarteko Ekoizkinen gainekoa, ardoaren eta hartzitutako edarien gainekoa, Garagardoaren gainekoa, Hidrokarburoen gainekoa, Tabako Moten Fabrikazioaren gainekoa eta elektrizitatearen gainekoa.

Araba

- Diputatuen Kontseiluak otsailaren 16an emandako Zerga Araugintzako 1/1999 Premiazko Dekretua, zerga bereziak arautzekoa.

Bizkaia

- Bizkaiko Lurralde Historikoaren zergei buruzko araudia Ekonomia Itun berriari egokitzeko, otsailaren 3ko 2003/2. Foru-araua.
- Irailaren 8ko 94/1998 Foru Dekretua, Zerga Bereziak aitortzeko obligazioa ezartzekoa eta zerga horien aitorpen-likidazioak aurkezteko peak zehaztekoa.

Gipuzkoa

- Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoko zerga-araudia Zerga Bereziei buruzkoa den abenduaren 28ko

3.b.2. Impuestos Especiales de Fabricación

a. Normativa

La adaptación de la imposición indirecta, y en particular de la imposición por Impuestos Especiales, a la nueva realidad sin fronteras fiscales de la Unión Europea ha supuesto un proceso de armonización y adopción por todos los Estados miembros de la normativa comunitaria. La aprobación de un conjunto de Directivas comunitarias y su transposición al Derecho español han configurado el marco definitivo de la imposición por Impuestos Especiales a nivel comunitario y, también, en el conjunto del Estado.

Así, del mismo modo que ocurre para el IVA, en el Concierto Económico se establece que los Impuestos Especiales se regirán por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales y Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de los Impuestos Especiales), a excepción de los modelos y plazos de ingreso.

El ámbito de la concertación abarca los tributos que gravan el alcohol y bebidas alcohólicas como los Impuestos sobre la Cerveza, sobre el Vino y Bebidas Fermentadas, sobre Productos Intermedios y sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas, así como los Impuestos sobre Hidrocarburos, sobre las Labores del Tabaco y sobre la Electricidad.

Álava

- Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, del Consejo de Diputados de 16 de febrero, que regula los Impuestos Especiales.

Bizkaia

- Norma Foral 2/2003, de 3 de febrero, por la que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia al nuevo Concierto Económico.
- Decreto Foral 94/1998, de 8 de septiembre, por el que se regula la obligación de declarar en los Impuestos Especiales de Fabricación y se determinan los períodos de presentación de las declaraciones-liquidaciones relativas a los mismos.

Gipuzkoa

- Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de

38/1992 Legeak araututakora egokitzea.

Ekonomia Itunak zenbait doiketa arautzen ditu, zerga hauengatik egitekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan bildutako zenbatekoei: Alkoholen eta Alkoholetik Eratorritako Edarien gaineko Zergagatik, Tarteko Ekoizkinen gaineko Zergagatik, Garagardoaren gaineko Zergagatik, Hidrokarburoen gaineko Zergagatik eta Tabako Moten gaineko Zergagatik. BEZaren doiketako eskemari jarraitzen diote doiketa horiek, kontsumo-indizeei eta zergei egozgarri zaien diru-bilketako gaitasunari erreparatzen baitiote, lurralde bakoitzean. Fabrikazioko zerga bereziak biltzeko, foru-aldundiek, alde batetik, zergaren gestio autonomoa egiten dute, eta, bestetik, dirua eskuratzen dute doiketen bidez. Doiketak banaketa horizontaleko koefizienteak aplikatuz egiten dira, eta, adierazia dugun moduan, haien ehuneko zehatza Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabakitzen ditu ekitaldi bakoitzerako.

2007an aldaketa bat onartu zen Hidrokarburoen gaineko Zergan, erabilera orokorreko gasolioei eta fuel-olioei aplikagarri zaizkien tarifetan, hain zuzen ere.

b. Bildutako diruaren doiketa

Hauek izan ziren, 2007an, Fabrikazioko Zerga Berezien bilketari egindako doiketak, kontzeptuetan banatuta eta mila eurotan adieraziak:

Sarrera-epeak / Plazos de ingreso:

Baba. zerga berezien doiketako 2006ko likidazioa / Ajustes-IIEE Liquidación 2006	-23.657
FZBen doiketa/2007ko lehen hiruhilekoa / Ajuste-IIEE/2007 1er. Trimestre	257
FZBren doiketa/2007ko bigarren hiruhilekoa / Ajuste-IIEE/2007 2º trimestre	-40.047
FZBen doiketa/2007ko hirugarren hiruhilekoa / Ajuste-IIEE/2007 3er. Trimestre	-28.088
FZBen doiketa/2007ko laugarren hiruhilekoa / Ajuste-IIEE/2007 4º trimestre	-15.409
FZBen doiketa, guztira / Total Ajuste IIEE	-106.944

c. Estatistikak

Fabrikazioko zerga bereziengatik bildutako zenbatekoa, 2007 ekitaldian, 1.394.000 mila eurotik gorakoa izan zen, doiketak barne. IV.51 Koadroan azaltzen da nola banatu zen kopuru hori lurralde historikoetan.

Impuestos Especiales.

Además, en el Concierto se incorporan unos ajustes a la recaudación real obtenida por el País Vasco por los siguientes Impuestos: Alcohol y Bebidas Derivadas, Productos Intermedios, Cerveza, Hidrocarburos y Labores del Tabaco. Estos ajustes repiten el esquema ya utilizado en el IVA, recurriendo para ello a los índices de consumo y la capacidad recaudatoria atribuibles a cada uno de los impuestos y ámbitos territoriales. La atribución de la recaudación de los Impuestos Especiales de Fabricación entre las Diputaciones Forales se realiza, tanto la recaudación por gestión propia como la obtenida de los ajustes, en función de los coeficientes de distribución horizontal acordados para cada ejercicio en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

En 2007 se aprobó una modificación en el Impuesto sobre Hidrocarburos en las tarifas aplicables a los gasóleos para uso general y los fuel óleos.

b. El ajuste de la recaudación

Los ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación en 2007, desglosados por conceptos, fueron los siguientes en miles de euros:

c. Estadísticas

La recaudación obtenida en 2007 superó los 1.394.000 miles de euros, incluyendo los ajustes, y su reparto por Territorios Históricos se recoge en el Cuadro IV.51.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN FABRIKAZIOKO ZERGA BEREZIENGATIK BILDUTAKO ZENBATEKOAK, 2007 EKITALDIAN
RECAUDACIÓN POR IMPUESTOS ESPECIALES DE FABRICACIÓN EN LA C.A. DE EUSKADI 2007

000€

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
Berezko kudeaketa / Gestión propia	253.383	752.945	494.758	1.501.086
. Alkohola, Eratorriak eta Bitartekoak . Alcohol, Derivados e Intermedios	2.671	7.936	5.215	15.822
. Hidrokarburoak / Hidrocarburos	180.798	537.252	353.027	1.071.076
. Tabako-motak / Labores del Tabaco	57.659	171.336	112.584	341.579
. Garagardoa / Cerveza	760	2.258	1.484	4.502
. Elektrizitatea / Electricidad	11.496	34.162	22.448	68.107
Doitzeak / Ajustes	-18.052	-53.643	-35.249	-106.944
. Alkohola, Eratorriak eta Bitartekoak . Alcohol, Derivados e Intermedios	7.681	22.824	14.998	45.503
. Hidrokarburoak / Hidrocarburos	-36.026	-107.055	-70.345	-213.427
. Tabako-motak / Labores del Tabaco	7.810	23.207	15.249	46.266
. Garagardoa / Cerveza	2.484	7.380	4.849	14.713
Guztira / Total	235.331	699.302	459.509	1.394.142
. Alkohola, Eratorriak eta Bitartekoak . Alcohol, Derivados e Intermedios	10.352	30.760	20.213	61.325
. Hidrokarburoak / Hidrocarburos	144.771	430.197	282.681	857.650
. Tabako-motak / Labores del Tabaco	65.468	194.543	127.834	387.845
. Garagardoa / Cerveza	3.244	9.639	6.333	19.216
. Elektrizitatea / Electricidad	11.496	34.162	22.448	68.107

KOADROA / CUADRO IV.51

Hidrokarburoen gaineko Zerga, 857.000 mila eurotik gorako diru-bilketa batekin eta aurreko urtean baino % 4,9 gehiagorekin, kopuru osoaren % 61,5 izan zen. Norbere kudeaketaren ondoriozko bilketa 1.071.076 mila euroraino iritsi zen, eta haren egokitzapen negatiboak horren % 19,9 izan ziren.

Haren atzetik, tabako-moten gaineko zergak kopuru osoaren % 27,8 bildu zuen (ia 388.000 mila euro); hau da, aurreko ekitaldian baino % 0,6 gehiago. Gehikuntza hori ia hutsala izan da, eta honela azaltzen da: gestio autonomoko zerga-bilketa % 14,5 gehitu den arren, egokitzapenetik datorrena % 47 gutxiagotu da, eta azken hori zerga horren guztizko bilketaren % 11,9 da. Zerga-bilketaren gehikuntza hori tabako-paketeen batez besteko prezioaren gehikuntzak azaltzen du (% 11 ingurukoa). Izan ere, horrek konpentsatu egin du neurri batean prezio baxuko bariatateen gero eta pisu handiagoa eta osasun-neurrien aplikazioak eragin duen kontsumoaren beheranzko bilakaera.

Alkohola eta edari alkoholodunen gaineko zergen bitartez 80.541 mila euro bildu ziren, kopuru osoaren % 5,7, alegia, eta aurreko urtearekin alderatuta beherakada jasan zuten zerga bakarrak izan ziren; izan ere, % 10,7 jaitsi ziren. Kasu honetan, bilketaren % 82 baino gehiago egokitzapenen ondoriozkoa izan zen. Bigarren urtez jarraian gertatu da beherapena zerga-bilketan, eta ziurrenik horretan eragina izan dute osasun arloko eta trafikoko kanpainen, horiek guztiek alkoholaren kontsumoaren beherapena –eta are ezabapena– gomendatzen

El Impuesto sobre Hidrocarburos, con una recaudación superior a los 857.000 miles de euros y un 4,9% más que en el año anterior, supuso el 61,5% del total. La recaudación por gestión propia alcanzó los 1.071.076 miles de euros y sus ajustes negativos supusieron un 19,9% de la misma.

A continuación el Impuesto sobre las Labores del Tabaco representó el 27,8% del total, alcanzando casi los 388.000 miles de euros, un 0,6% más que en el ejercicio anterior. Este incremento, casi imperceptible, se explica porque si bien la recaudación en gestión propia se ha incrementado un 14,5%, la derivada del ajuste se ha visto reducida en un 47%, suponiendo éste el 11,9% de la recaudación total del Impuesto. El incremento recaudatorio queda explicado por el incremento de los precios medios de las cajetillas, cifrado en un 11%, que compensaron en parte el, cada vez, mayor peso de variedades de bajo precio y la evolución descendente en el consumo debido a la aplicación de medidas sanitarias.

Los impuestos que gravan el alcohol y las bebidas alcohólicas acumularon una recaudación de 80.541 miles de euros, un 5,7% del total y una disminución del 10,7%, siendo los únicos que experimentan un descenso en la recaudación respecto del año anterior. En este caso más del 82% de la recaudación provino de los ajustes. Es el segundo año consecutivo en el que se produce una disminución en la recaudación, posiblemente afectada por las campañas sanitarias y de Tráfico que inciden en una disminución, cuanto no

baitute.

Elektrizitatearen gaineko Zergari dagokionez, bilketa 68.107 mila eurora iritsi zen, hau da, aurreko urteko ekitaldian baino % 10 gehiago, eta guztizko bilketaren % 4,9 hartu zuen. Zerga-bilketan, beraz, hazkunde handia izan da, eta hazkunde hori, batik bat, KWh-en prezioaren garestitzeak eragin du. Garestitze horrek, bide batez, tarifa-defizitarean igoera murriztea bilatzen du, kontsumoa aurreko urteko maila berberetan bide baitago.

3.b.3. Beste zeharkako zerga batzuk

a. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

Egitate zergagarrien multzo heterogeneo bat zergapetzen du zeharkako zerga honek, baina zerga horrek bildutako zenbatekoen azterketa egiteko, egitate horien sailkapen hau egin daiteke: irabazizko ondare-eskualdaketak, sozietate-eragiketak eta egintza juridiko dokumentatuak.

Araudi autonomopeko zerga itundua da, baina, hala ere, lurralde erkideko arauak arautuko dituzte sozietate-eragiketak, kanbio-letrak edo horien ordezkio balioa edo igorpen-zeregina duten agiriak. Hauek dira zerga hori arautzen duten oinarritzko foru-arauak:

Araba

- Martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa.
- Diputatuen Kontseiluak abenduaren 30ean emandako 66/2003 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudia onartzekoa.

Bizkaia

- Martxoaren 23ko 3/1989 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa.
- Ekainaren 5eko 106/2001 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudia onartzekoa.

Gipuzkoa

- Abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa.

eliminación, del consumo de alcohol.

En cuanto al Impuesto sobre la Electricidad, la recaudación alcanzó los 68.107 miles de euros, un 10% más que en el ejercicio anterior, y supuso el 4,9% de la recaudación total. Se trata de un importante crecimiento en la recaudación que se debe, fundamentalmente, al encarecimiento del precio del KWh que persigue reducir el aumento del déficit tarifario, ya que el consumo parece estar en los mismos niveles que el año anterior.

3.b.3. Otros Impuestos Indirectos

a. Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

Es un impuesto indirecto que grava un conjunto heterogéneo de hechos imponible clasificados para su análisis recaudatorio en: transmisiones patrimoniales onerosas y operaciones societarias, y actos jurídicos documentados.

Es un tributo concertado de normativa autónoma, salvo en las operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen función de giro, regidos por normativa común. La regulación foral básica de este Impuesto está contenida en las normas siguientes:

Álava

- Norma Foral 11/2003, de 31 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.
- Decreto Foral 66/2003, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Bizkaia

- Norma Foral 3/1989, de 23 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.
- Decreto Foral 106/2001, de 5 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Gipuzkoa

- Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Zerga horrek, 2007ko ekitaldian, 506.995 mila euro bildu zituen Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, 372.128 mila euro irabazizko eskualdaketei eta sozietate-eragiketei dagokie, eta 134.867 mila euro egintza juridiko dokumentatuei. Horrela, zerga horrengatik 2006an lortutakoaren antzeko zerga-bilketa lortu zen. Gehikuntza arin bat izan da, baina ez da iristen % 0,5era. Kontzeptu bi horien batuketak zerga itunduen bidezko bilketaren kopuru osoaren % 3,7 pilatu zuen.


La recaudación total en el 2007 por este Impuesto en el conjunto del País Vasco ascendió a 506.995 miles de euros, desglosados en 372.128 miles de euros en concepto de transmisiones onerosas y operaciones societarias y a 134.867 en el concepto de actos jurídicos documentados. De esta forma se obtuvo una recaudación por este impuesto similar a la obtenida en 2006, con un ligero incremento que no llega al 0,5%. La suma de ambos conceptos supuso el 3,7% de la recaudación total por tributos concertados.

ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAK BILDUTAKO ZENBATEKOEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO SOBRE TRANSMISIONES PATRIMONIALES Y ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	KE eta SE T.O y O.S.	E.J.D. A.J.D.	KE eta SE T.O y O.S.	E.J.D. A.J.D.	KE eta SE T.O y O.S.	E.J.D. A.J.D.	KE eta SE T.O y O.S.	E.J.D. A.J.D.
2002	21.190	15.458	103.182	51.425	71.031	35.733	195.403	102.616
2003	26.639	15.390	126.023	60.793	77.888	35.400	230.550	111.583
2004	30.932	19.508	156.821	55.059	91.573	37.545	279.326	112.112
2005	34.361	19.404	167.252	55.034	105.849	40.934	307.462	115.372
2006	33.864	22.596	208.881	67.521	125.201	46.487	367.946	136.604
2007	38.504	21.828	214.140	64.899	119.484	48.140	372.128	134.867
% 03/02	25,71	-0,44	22,14	18,22	9,65	-0,93	17,99	8,74
% 04/03	16,12	26,76	24,44	-9,43	17,57	6,06	21,16	0,47
% 05/04	11,09	-0,53	6,65	-0,05	15,59	9,03	10,07	2,91
% 06/05	-1,45	16,45	24,89	22,69	18,28	13,57	19,67	18,40
% 07/06	13,70	-3,40	2,52	-3,88	-4,57	3,56	1,14	-1,27

KOADROA / CUADRO IV.52

ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BILDUTAKO ZENBATEKOEN BILAKAERA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO SOBRE TRANSMISIONES PATRIMONIALES Y ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS EN LA C.A. DE EUSKADI



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.25

Azken urte horretan, ondarearen transmisioei dagokien bilketaren igoera % 1,1ekoa izan zen; ekintza juridiko dokumentatuei dagokienez, kasu horretan bilketa zerbait jaitsi zen, % 1,3, hain zuzen ere. Bi kasu horietan, 2007an aurreko urtearen aldean lortu zen zerga-bilketak jaitsiera nabarmena izan zuen.

Ondare-eskualdaketengatik zerga-bilketa gehitu egin da hiru lurralde historikoetan; egintza juridiko dokumentatuengatikoa, berriz, portaera desberdina da batetik bestera.

Zerga-bilketan egon den egonkortze horretan, batez ere, bi ziok izan dute eragina. Lehenengoa izan da aria-arian moteltzea izan dela bigarren eskuko etxebizitzaren salmentan, bai eta haien prezioan ere; bigarrenak, berriz, ibilgailu erabilien salmentan izandako astiroagotzea izan da. Eta horiek dira, hain zuzen ere, zerga hori osatzen duten bi elementu nagusiak.

Zerga-bilketaren galera hori, dena dela, Bizkaian egin diren sozietate-eragiketa garrantzitsu batzuekin arintzea lortu da.

b. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia

Zerga hau 1993tik aurrera dago indarrean, eta zerga itundua da. Zerga-harmonizazioko prozesuaren baitan, Europar Batasuneko kide diren Estatu guztietan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa gehitua kendu ondoren jaso zen zerga hau euskal zerga-sisteman.

1995ean, ehuneko puntu bat jaitsi zen zergaren tasa, eta hura % 12an finkatu zen. Lur-eremu guztietan ibil daitezkeen ibilgailu homologatuek % 6ko zerga-tasa ordaintzen hasi ziren. 1996an, tasa hori % 9ra igo zen, eta 1997an, berriz, % 12ra.

2007an airearen kalitatearen eta atmosferaren babesaren gaineko azaroaren 15eko 34/2007 Legea onartu zen. Zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez berregituratu egiten du zerga hori, nahiz eta xedapen horren eraginak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera diren aplikaziokoak.

Dauzkan berritasunen artean, honako hau aipatu behar da: zerga-tasen aplikaziorako, CO₂ko igorpen ofizialei erreparatu beharko zaie. Zerga-tasen tarteak, horrenbestez, % 0ren eta % 14,75en artekoa da.

Durante este último año, el aumento recaudatorio en lo que se refiere a transmisiones patrimoniales fue de un 1,1%, mientras que en lo que respecta a los actos jurídicos documentados la recaudación sufrió un retroceso del 1,3%. En ambos casos, la recaudación obtenida en 2007 en comparación con el año anterior experimentó una sensible caída.

En los tres Territorios Históricos la recaudación por Transmisiones Patrimoniales se incrementa, mientras que por Actos Jurídicos Documentados el comportamiento es desigual.

Esta estabilización en la recaudación se ha visto afectada, principalmente, por dos motivos. El primero ha sido un progresivo estancamiento en la venta de viviendas de segunda mano y en su precio, mientras que el segundo ha sido así la ralentización en la venta de vehículos usados, dos de los principales elementos que componen este impuesto.

No obstante, esta pérdida de recaudación se ha conseguido mitigar con algunas importantes operaciones societarias realizadas en Bizkaia.

b. Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte

Este Impuesto, vigente desde 1993, tiene el carácter de tributo concertado. Su incorporación al sistema tributario vasco fue debida a la supresión en todos los Estados miembros de la Comunidad Europea del tipo incrementado en el Impuesto sobre el Valor Añadido, con ocasión de la armonización de los tipos de este Impuesto.

En 1995 se redujo un punto porcentual el tipo impositivo, quedando en el 12%. Los vehículos tipo todo terreno homologados comenzaron a tributar por este Impuesto al tipo impositivo del 6%, en 1996 al 9 % y a partir de 1997 al 12%.

En 2007 se aprobó la Ley 34/2007, de 15 de noviembre, de calidad del aire y protección de la atmósfera, que reestructura este Impuesto mediante la Disposición Adicional octava, si bien sus efectos son de aplicación a partir de 1 de enero de 2008.

Entre las novedades que presenta cabe destacarse que, para la aplicación de los tipos impositivos, habrá de atenderse a las emisiones oficiales de CO₂. La horquilla de tipos impositivos oscila entre el 0% y el 14,75%.

**ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGAK BEREZIAK BILDUTAKO ZENBATEKOEN BILAKAERA,
LURRALDE HISTORIKOKA**
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO ESPECIAL SOBRE DETERMINADOS MEDIOS DE
TRANSPORTE POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

000€

	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
2002	9.349	29.028	17.012	55.389
2003	9.386	29.654	18.249	57.289
2004	9.957	32.572	19.228	61.757
2005	10.277	35.454	19.182	64.913
2006	11.484	37.615	21.251	70.351
2007	12.568	41.321	23.112	77.001
% 03/02	0,39	2,16	7,27	3,43
% 04/03	6,08	9,84	5,36	7,80
% 05/04	3,22	8,85	-0,24	5,11
% 06/05	11,74	6,10	10,79	8,38
% 07/06	9,44	9,85	8,76	9,45

KOADROA / CUADRO IV.53

2007an lurralde historikoen multzo osoaren bilketa 77.001 mila eurokoa izan zen, hots, aurreko urtean baino % 9,5 altuagoa. Euskal Autonomia Erkidegoko zerga itunduen ondoriozko bilketa osoaren % 0,6 izan zen, eta bere aurrekontu betearazpen maila % 101,9koa izan zen.

Aurreko urtean ez bezala (orduan hiru lurralde historikoen portaera positiboa baino desberdina izan zen), 2007an portaera berdintsua izan da hiruretan, eta gehikuntza berdintsuak izan dituzte ehunekoetan.

2007an Euskal Autonomia Erkidegoan zerga honen mende dauden ibilgailuen matrikulazioak geldialdi erabatekoa jasan zuen, % 7,5ekoa. Jokabide desberdinak ikusi dira; autoei dagokienez, Araba izan da matrikulazio kopuruaren igoera jasan zuen lurralde historiko bakarra, beste bietan, aldiz, kopuruak behera egin zuen. Aitzitik, motozikletak asko igo dira, Gipuzkoan % 8,8, eta Bizkaian % 20,7, hain zuzen ere, kopuruak bi ehuneko horien artean baitaude.

Nahiz eta 2007an bilketan gehikuntza gertatu den zerga horretan eta zifra historikoa iritsi den (77.000 mila eurotik gorakoa), zuhurrak izan behar gara gehikuntza hori interpretatzean. Gehien kutsatzen duten ibilgailuak zerga-tasa handiagoetara zergapetzen dituen zerga berri bat jarri da indarrean. Zerga berri hori indarrean jartzeak, hain zuzen ere, aurreratzea ekarri du ibilgailu-mota jakin baten matrikulazioan, 2008tik aurrera zerga-tasa handiagoa jasango baitute. Bestalde, kontzesionarioek ere gehitu egin dituzte automatrikulazioak beren helburuak betetzeko. Hori dela eta, bi arrazoi horiek direla eta, moteldu egin da matrikulazio-kopuruaren jaitziera, 2007. urtean

En el conjunto de los Territorios Históricos la recaudación ascendió en 2007 a 77.001 miles de euros, con un incremento del 9,5% respecto al año anterior. Representó un 0,6% de la recaudación total por tributos concertados en el País Vasco, siendo su grado de ejecución presupuestaria del 101,9%.

A diferencia del año anterior en el que el comportamiento en los tres Territorios Históricos si bien fue positivo fue desigual, en 2007 ha sido similar, con unos incrementos porcentuales similares.

En 2007 la matriculación de vehículos sujetos a este impuesto en el País Vasco ha sufrido un estancamiento total del 7,5%. El comportamiento ha sido desigual, por cuanto respecto de los turismos, Álava ha sido el único territorio histórico en el que se ha producido un incremento en el número de matriculaciones, sufriendo retrocesos en los otros dos territorios históricos. Por el contrario, las motocicletas han registrado un incremento notable, con porcentajes que van desde el 8,8% en Gipuzkoa hasta el 20,7% en Álava.

Si bien en 2007 se ha producido un incremento recaudatorio por este impuesto alcanzándose una cifra histórica que supera los 77.000 miles de euros, hay que ser cauto en su interpretación. La entrada en vigor del nuevo impuesto por el que se somete a tipos impositivos superiores a los vehículos que más contaminen, ha supuesto un adelantamiento en la matriculación de determinado tipo de vehículos que, a partir de 2008, soportarán una mayor fiscalidad. Este hecho, unido al incremento de las automatriculaciones por parte de los concesionarios para cubrir sus objetivos ha contribuido a contener la caída en el número de matriculaciones que venía

zehar gertatzen ari zen jaitsiera, hain zuzen ere.

c. Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko zerga

Autonomia-erkidegoen finantziazio-ereduari buruzko arau-esparruaren baitan eman zen abenduaren 27ko 24/2001 Legea, Neurri Fiskalak, Administratiboak eta Lan Arlokoak ezartzekoa, 2002ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko. Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga ezarri zuen lege horrek, eta berariaz arautu zuen zerga horrek bildutako dirua osasun-arloko gastuak estaltzeko, eta, beharrezkotzat jotzen bada, ingurumen-jarduerek sortako gastuak estaltzeko erabiliko dela.

Arau hauek osatzen dute lurralde erkideko arau-esparrua: Neurri Fiskalak, Administratiboak eta Lan Arlokoak ezartzekoa den abenduaren 27ko 24/2001 Legeko 9. artikulua eta ekainaren 17ko 1554/2002 Agindua Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak onartzekoa.

Hau da zerga horren oinarritzko foru-araudia:

Araba

- Diputatuen Kontseiluak ekainaren 4an emandako Zerga Araugintzako 3/2002 Premiazko Dekretua, Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga arautzekoa.
- Diputatuen Kontseiluak uztailaren 9an emandako 40/2002 Foru Dekretua, Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak onartzekoa.

Bizkaia

- Ekainaren 28ko 6/2002 Foru Araua, Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari buruzkoa.
- Uztailaren 1eko 1986/2002 Foru Agindua, Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren hiruhileko aitorten-likidazioko 569 eredua onartzekoa eta hura kudeatzeko zenbait arau ematekoa.

Gipuzkoa

- Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Araua, Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari buruzkoa.

produciéndose durante el año 2007.

c. Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos

En el marco del modelo de financiación de las Comunidades Autónomas y con efectos a partir del 1 de enero de 2002, con la Ley 24/2001, de 27 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social se estableció este nuevo Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, quedando afectada su recaudación a la cobertura de los gastos en materia de sanidad y, en su caso, de los gastos como consecuencia de actuaciones medioambientales.

La normativa del territorio común está contenida en el artículo 9 de la Ley 24/2001, de 27 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social y la Orden 1554/2002, de 17 de junio, por la que se aprueban las normas de gestión del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.

La normativa foral básica de este Impuesto es la siguiente:

Álava

- Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 3/2002, del Consejo de Diputados de 4 de junio, regulador del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.
- Decreto Foral 40/2002, del Consejo de Diputados de 9 de julio, que aprueba las normas de gestión del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.

Bizkaia

- Norma Foral 6/2002, de 28 de junio, del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.
- Orden Foral 1986/2002, de 1 de julio, por la que se aprueba el Modelo 569 de declaración-liquidación trimestral del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos y se dictan determinadas normas de gestión.

Gipuzkoa

- Norma Foral 2/2002, de 20 de marzo, del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.

- Uztailaren 15eko 736/2002 Foru Agindua, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak onartzekoa.

Zeharkako zerga da, eta zenbait hidrokarburoren kontsumoa zergapetzen du, fase bakarrean, produktu horien txikizkako salmenta egitean. Zergatutako produktuari erreparatuta, 0,024 euro igo dezake haien prezioa litroko, eta, zehazki, fuel-olioaren kasuan, igoera 0,001 eurokoa da, kiloko. Aukera ematen zaie autonomia-erkidegoei zergaren tasa, gehienez, tasa bakoitzaren ehuneko bikoitzeraino igotzeko; hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da aukera erabili.

Ekonomia Itunak arautzen du Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauak arautuko dutela hura, eta lurralde historikoetako erakunde eskudunek zergaren tasa erabaki dezaketela, lurralde erkidean indarrean dauden mugen barruan. Halaber, aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte lurralde historikoei, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduak datu berak jasoz, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ezingo dute alde handirik izan Estatuko Administrazioak ezarritakoekin.

Fabrikazioko Zerga Bereziekin gertatzen den moduan, zerga horren diru-bilketa foru-aldundien artean banatzeko, banaketa horizontaleko koefizienteak aplikatzen dira, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak ekitaldi bakoitzerako erabakitakoak.

- Orden Foral 736/2002, de 15 de julio, por la que se aprueban las normas de gestión del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.

Se trata de un impuesto indirecto que recae sobre el consumo de determinados hidrocarburos, gravando, en fase única, las ventas minoristas de dichos productos. Significa el aumento de hasta 0,024 euros por litro, según sea el producto gravado, que en el caso del fuelóleo es de 0,001 por kilo, permitiéndose que las Comunidades Autónomas incrementen dicho tipos hasta un máximo del doble de cada tipo, incremento no aplicado en el País Vasco.

En la concertación se dice que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, pudiendo las Instituciones competentes de los Territorios Históricos establecer los tipos de gravamen del Impuesto dentro de los límites vigentes en cada momento en territorio común, aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Como en el caso de los Impuestos Especiales de Fabricación, la atribución de la recaudación entre las Diputaciones Forales se realiza en función de los coeficientes de distribución horizontal acordados para cada ejercicio en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

ZENBAIT HIDROKARBUREN TXIKIZKAKO SALMENTAREN GAIKOKO ZERGA BILDUTAKO ZENBATEKOEK BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO SOBRE LAS VENTAS DE DETERMINADOS HIDROCARBUROS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
2002	5.263	15.924	10.535	31.721
2003	7.384	22.179	14.548	44.112
2004	7.473	22.625	14.838	44.935
2005	7.964	23.978	15.690	47.632
2006	8.180	25.426	16.485	50.091
2007	8.770	26.062	17.125	51.957
% 03/02	40,32	39,28	38,10	39,06
% 04/03	1,20	2,01	1,99	1,87
% 05/04	6,58	5,98	5,75	6,00
% 06/05	2,71	6,04	5,07	5,16
% 07/06	7,22	2,50	3,88	3,73

KOADROA / CUADRO IV.54

lazkoa seigarren ekitaldia izan da zerga indarrean jarri zenetik (2002ko urtarrilaren 1etik, hain zuzen ere), eta, guztira, 51.957 mila euro bildu ditu, aurreko ekitaldian bildutakoa baino % 3,7 gehiago, orduan lortutako bilketaren aldean. Nahiz eta zerga-bilketa, kopuru absolututan, gehitu egin den seigarren urtez jarraian, ehuneko gehikuntzak jaitsiera arin bat izan du, 2006an izandako ehunekoaren aldean, orduan % 5,2koa izan baitzen. Euskal Autonomia Erkidegoko zerga itunduen ondoriozko bilketa osoaren % 0,4 izan zen, eta bere aurrekontuko aurreikuspenen gaineko betearapen maila % 97,1koa izan zen.

Aurreko urteetako ekitaldietan bezala, estatuko tasa ez zenez igo, bilketaren igoera zamapeko produktuen kontsumoaren igoerak baldintzatu zuen.

d. Aseguru-sarien gaineko zerga

Neurri Fiskalak, Administratiboak eta Lan Arlokoak ezartzekoa den abenduaren 30eko 13/1996 Legeak sortu zuen Aseguru-sarien gaineko Zerga, eta, berariaz, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera dago indarrean. Europar Batasuneko Estatu kide gehienek jasotzen dituzte beren legedietan zerga honen egitate zergagarriak; hau da, aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak.

Lurralde historikoek emandako arau hauek osatzen dute zerga horren oinarritzko foru-araudia:

Araba

- Diputatuen Kontseiluak irailaren 30ean emandako Zerga Araugintzako 12/1997 Premiazko Dekretua, Aseguru-sarien gaineko Zerga arautzekoa.

Bizkaia

- Irailaren 16ko 2/1997 Foru Dekretu Arautzailea, Aseguru-sarien gaineko zergari buruzkoa.

Gipuzkoa

- Urriaren 21eko 70/1997 Foru Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoko zerga-araudia Neurri Fiskalak, Administratiboak eta Lan Arlokoak ezartzekoa den abenduaren 30eko 13/1996 Legeak Aseguru-sarien gaineko Zergari buruz araututakora egokitzekoa.

Zeharkako zerga da, eta fase bakarrean zergapetzen ditu aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak. Ordaindutako primaren edo kuotaren zenbatekoa da zergaren zerga-oinarria, eta haren

En este sexto ejercicio desde la implantación del Impuesto el 1 de enero de 2002, la recaudación por este tributo alcanzó los 51.957 miles de euros, lo que significó un incremento del 3,7% sobre la recaudación obtenida en el ejercicio anterior. Si bien por sexto año consecutivo la recaudación, en términos absolutos, se incrementó, el incremento porcentual ha sufrido un ligero descenso sobre el porcentaje experimentado en 2006 que fue del 5,2%. Representó un 0,4% de la recaudación total por tributos concertados en el País Vasco y el grado de ejecución sobre las previsiones presupuestarias fue del 97,1%.

Al igual que en ejercicios precedentes, al no haberse incrementado el tipo estatal, el incremento en la recaudación viene determinado por el aumento del consumo de los productos objeto de gravamen.

d. Impuesto sobre las Primas de Seguros

El Impuesto sobre las Primas de Seguros, vigente desde el 1 de enero de 1997, fue creado por la Ley 13/1996, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social, contemplando el gravamen de un hecho imponible, las operaciones de seguro y capitalización, previsto en la mayoría de los Estados miembros de la Unión Europea.

La normativa foral básica de este Impuesto se contiene en las siguientes disposiciones de los Territorios Históricos:

Álava

- Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 12/1997, del Consejo de Diputados de 30 de septiembre, por el que se regula el Impuesto sobre las Primas de Seguros.

Bizkaia

- Decreto Foral Normativo 2/1997, de 16 de septiembre, del Impuesto sobre las Primas de Seguros.

Gipuzkoa

- Decreto Foral 70/1997, de 21 de octubre, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Guipúzcoa a lo dispuesto en la Ley 13/1996, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social, en lo referente al Impuesto sobre las Primas de Seguros.

Se trata de un tributo de naturaleza indirecta que grava, en fase única, las operaciones de seguro y capitalización. La base imponible ésta constituida por el importe de la prima o cuota satisfecha, siendo

zerga-tasa % 6koa da (1997 ekitaldian % 4koa izan zen).

Ekonomia Itunak dio itundutako zerga dela, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauak arautuko dutela. Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduak datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ezingo dute alde handirik izan Estatuko Administrazioak ezarritakoekin.

el tipo impositivo del 6% (durante 1997 fue del 4%).

En el Concierto Económico se establece que es un tributo concertado que se registrará por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado. No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que habrán de contener al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

ASEGURU-SARIEN GAINEN ZERGAK BILDUTAKO ZENBATEKOEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOKA EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN DEL IMPUESTO SOBRE LAS PRIMAS DE SEGUROS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
2002	8.155	29.697	18.553	56.406
2003	8.552	31.662	20.134	60.347
2004	9.476	33.656	21.571	64.703
2005	10.191	37.419	23.328	70.938
2006	10.421	37.851	23.668	71.940
2007	11.472	40.618	26.031	78.121
% 03/02	4,86	6,61	8,52	6,99
% 04/03	10,82	6,30	7,14	7,22
% 05/04	7,54	11,18	8,14	9,64
% 06/05	2,26	1,15	1,45	1,41
% 07/06	10,08	7,31	9,99	8,59

KOADROA / CUADRO IV.55

Zerga honen bidez 78.121 mila euro baino gehiago bildu ziren; hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, % 8,6ko igoera jasan zuen, eta indarrean sartu zenetik lotutako emaitza onak berretsi ziren. Izan ere, zerga honen ondoriozko bilketa urtez urte gehituz joan da, eta gehikuntza hori 2005ekoen antzeko mailetan kokatu zen, 2006an baino ez baitzen aldatu gehikuntza hori, urte horretan atzerapen handia gertatu baitzen bilketaren gehikuntzan. Aurrekontuko aurreikuspenen gaineko betearazpen-maila % 99,5koa izan zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zerga itunduen ondoriozko bilketa osoaren % 0,6 izan zen.

e. Ikatzen gaineko Zerga Berezia

Azaroaren 18ko 22/2005 Legeak sortuta (2005eko azaroaren 19ko BOE, 277. zenbakia), 2005eko azaroaren 20tik dago indarrean Ikatzen gaineko Zerga; izan ere, lege horrek Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ditu Europar

La recaudación por este Impuesto superó los 78.121 miles de euros, lo que significó un incremento del 8,6% respecto al ejercicio anterior, confirmándose los buenos resultados obtenidos desde su entrada en vigor, en cuanto a que año tras año la recaudación por este impuesto se ha visto incrementada; situándose dicho incremento en niveles similares a los de 2005, ya que únicamente se vio alterada en 2006 cuando se produjo un serio retroceso en el incremento recaudatorio. El grado de ejecución fue del 99,5% sobre las previsiones presupuestarias y su peso relativo en relación con el total de la recaudación por tributos concertados en el País Vasco fue del 0,6%.

e. Impuesto Especial sobre el Carbón

El Impuesto Especial sobre el Carbón, vigente desde el 20 de noviembre de 2005, fue creado mediante la Ley 22/2005, de 18 de noviembre, por la que se incorporan al ordenamiento jurídico español diversas directivas comunitarias en materia

Batasuneko zenbait zuzentarau produktu energetikoei eta Estatu kideetako sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubide fiskal komunari buruzkoak. Halaber, Europar Batasuneko esparruan pentsio-funtsetara eta mugaz gaindi egindako ekarpenen araubide fiskala arautzen du lege horrek.

Zerga berri hori ezarri da 2003/96/CE zuzentarauak hala aginduta, zuzentarau horrek xedatzen baitu zenbait produktu energetikori (besteak beste, ikatzari) zergak aplikatu behar zaizkiela.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen urriaren 25eko 28/2007 Legearen bitartez (lege horren bidez, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartu zen) zerga hori itundu da, eta administrazioetako bakoitzaren araguintza- eta ordainarazpen-eskumena mugatu da.

Ez daukagu zerga horri buruzko 2007ko zerga-bilketaren daturik; hala ere, praktikan, kontsumitutako ikatz ia guztiari (elektrizitatea sortzeko erabilitakoa, siderurgia- eta metalurgia-arloetan erabilitakoa, mineralogia-prozesuetan erabilitakoa eta etxean kontsumitutakoa) Legeak araututako salbuespenak edo lotura gabeziako zioak aplikatuko zaizkio, eta, ondorioz, zergak ez du ia efekturik izango.

3.c. Jokoaren gaineko zerga

Jokoaren gainean ezartzen diren zergeri dagokienez, bi tasa bereizi behar dira: alde batetik, Zozketa, Tonbola, Apustu eta Ausazko Konbinazioen gaineko Zerga Tasa, Tasa Fiskalen Testu Bategineko IV. kapituluko II. tituluak araututakoa, 1966ko abenduaren 1ean; eta, bestetik, Zori, Enbido eta Adur Jokoen gaineko Tasa (kasinoak, bingoak, makina automatikoak eta txartelen bidezko jokoak), otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuak araututakoa.

Ekonomia Itunak arautzen du foru-aldundien eskumena izango dela, euskal lurraldean, jokoaren gaineko tasa kudeatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea, eta lurralde erkideko zerga-arauak aplikatuko direla, egitate zergagarriak eta subjektu pasiboak zehazteko.

Lurralde historikoek emandako arau hauek osatzen dute zerga horren oinarritzko foru-araudia:

de fiscalidad de productos energéticos y electricidad y del régimen fiscal común aplicable a las sociedades matrices y filiales de estados miembros diferentes, y se regula el régimen fiscal de las aportaciones transfronterizas a fondos de pensiones en el ámbito de la Unión Europea (BOE nº 277 de 19 de noviembre de 2005).

Este nuevo impuesto es consecuencia de la Directiva 2003/96/CE que obliga a los Estados miembros a someter a tributación toda una serie de productos energéticos, entre los que se incluye el carbón.

Mediante la Ley 28/2007, de 25 de octubre, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco se ha procedido a concertar este impuesto, delimitándose la competencia normativa y exaccionadora de cada una de las Administraciones.

No se dispone de datos de recaudación de 2007 de este impuesto, si bien, en la práctica, la casi totalidad del consumo de carbón (producción de electricidad, siderurgia y metalurgia, procesos mineralógicos y consumo doméstico) estará cubierta por los supuestos de no sujeción o exención que prevé la Ley, por lo que desde el punto de vista recaudatorio no tendrá prácticamente efectos.

3.c. Tributo sobre el Juego

En materia de fiscalidad sobre el juego es necesario diferenciar entre las tasas que gravan las rifas, tómbolas, apuestas y combinaciones aleatorias recogidas en el Capítulo IV del Título II del Texto Refundido de Tasas Fiscales de 1 de diciembre de 1966 y la tasa que grava los juegos de suerte, envite y azar (casinos, bingo, máquinas automáticas y juego mediante boletos) establecida por el Real Decreto Ley 16/1977, de 25 de febrero.

De acuerdo con el Concierto Económico la gestión, inspección, revisión y recaudación de la Tasa sobre el Juego en el territorio vasco corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales, aplicando la misma normativa tributaria que en Territorio Común en lo que se refiere al hecho imponible y sujeto pasivo.

La normativa foral básica de este Impuesto se contiene en las siguientes disposiciones de los Territorios Históricos:

Araba

- Otsailaren 14ko 5/2005 Foru Araua, Arabako Jokoaren gaineko Zergari buruzkoa.

Bizkaia

- Martxoaren 10eko 3/2005 Foru Araua, Bizkaiko Jokoaren gaineko Zergari buruzkoa.

Gipuzkoa

- Otsailaren 1eko 1/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Jokoaren gaineko Zergari buruzkoa.

Álava

- Norma Foral 5/2005, de 14 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Álava.

Bizkaia

- Norma Foral 3/2005, de 10 de marzo, General por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Gipuzkoa

- Norma Foral 1/2005, de 1 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Jokoaren gaineko Tasa Fiskalaren ondoriozko bilketak 2007ko ekitaldian ia 2006ko maila berberetan iraun du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko multzoan 68.738 mila euroraino iritsi zen, hau da, 2006an baino 180 mila euro gutxiago, eta ondorioz, % 0,3ko beherakada jasan zuen. Datu horien xehetasunak lurralde historiko bakoitzaren arabera IV.56 Koadroan jaso dira.

Lurralde mailan, soil-soilik Arabako Lurralde Historikoan lortu da tasa positiboa, zerga-bilketa % 2,1 gehitu baita lurralde hartan.

La recaudación total por la Tasa Fiscal sobre el Juego en el ejercicio 2007 prácticamente se ha mantenido en los mismos niveles que en 2006, ascendiendo, en el conjunto del País Vasco, a 68.738 miles de euros, 180 miles de euros menos que en el año 2006, lo que ha supuesto un decremento porcentual del 0,3%, desglosándose por Territorios Históricos tal y como se indica en el Cuadro IV.56 siguiente.

A nivel territorial, únicamente en el Territorio Histórico de Álava se ha obtenido una tasa positiva, incrementándose la recaudación el 2,1%.

JOKOAREN TASA FISKALAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BILDUTAKO ZENBATEKOAK, 2007AN RECAUDACIÓN POR LA TASA FISCAL SOBRE EL JUEGO EN LA C.A. DE EUSKADI 2007				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAE
